

STARTINNOVA 9

9.KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren barruan sartu ahal ditugun kostuak mota desberdinekoak dira, hala nola, zuzenak zeharkakoak, finkoak, aldakorrak, gizarte kostuak, ingurumen kostuak eta abar.

Enpresako kostu finko nagusiak, lantegiaren eta biltegiaren alokairuak dira. Alde batetik, lantegia beharrezkoa izango da produktua ekoizteko, eta horretarako lantegi baten alokairua ordaindu beharko dugu. Lantegiaren prezioa 2.500€ hilabetero izango lirateke.

Beste aldetik biltegi baten alokairua ordaindu behar dugu, gure produktuak gordetzeko, honek 3.250€ koa hilabetero izango zen, Sondikan kokatutako biltegi bat izango zen (210 m karratukoa). Baina hori baino lehen, produktua ekoizteko, materia prima beharrezkoa izango da, adibidez, egurra.

Bide honetan, gure produktuak ekoizteko beharrezkoak diren materialen kostuak aipatu behar ditugu ere, hau da, egurra, imanak, blokeak edo beste material batzuk gure produktuak lantzeko edo osatzeko ezinbestekoak direnak.

Gure produktuak egurrez eginda egongo direnez egur asko behar dugu, egurra prezioa 33,6 eurokoa izango lirateke metro kubiko bakoitzarentzat, prezio hau aldakorra da hilabetearen arabera, hilabete batzuetan besteetan baino egur gehiago beharko dugulako.

Imanen gastuak 4€ unitate bakoitzeko (eskuaren imana + blokeen imanak) izango ziren, guk erosiko ditugun imanak oso potenteak direlako eta ez dira iman bat baino gehiago behar unitate bakoitzeko.

Beste aldetik, gure langileei ordainduko diogun diruko kostuak kontuan hartu behar ditugu, taldeko pertsona guztiak soldata base bera izango dugu 2.100€-koa, soldata hau hilabetearen mozkinen arabera aldatu dezake.

Baita ere, kontuan hartu behar da, beste langile horiek guk baino diru gutxiago kobratuko dute, beren lanpostuaren arabera eta pertsona bakoitzak egin beharren arabera. Gainerako langileen soldata guztiak hilean 1.300 € eta 1600 €-koak izango dira.

Argia eta uraren fakturaren arabera esan ahal dugu, argiaren aldetik 130€-ko kostua izango dugula hileroko, beste aldetik uraren arabera, 40€ hileroko.

Lehen aipatu ditugun kostu guztiez gain, diru pixka bat ere erreserbatuta eduki beharko dugu, gure produktua fabrikatzeko balioko duten beste material mota batzuk erosteko ustekabeko zerbait sortuko balitz ere, hala nola, tresnak, adesibo eketariak, herremintak eta abar.

Diru pixka bat erreserbatuta daukagunez, ziurtatzen gara ez dugula ustekaberik izango zerbait behar dugunean. Kostu hauek 150€-koak izango ziren eta hileroko ikusi beharko ginateke diru horren ze kantitate gastatu dugu hilabete horretan, ustekaberik ez izateko poltsan diru gehiago sartzeko.

Banatzeko metodoari dagokionez, hasieran furgoneta pare bat erosiko ditugula erabaki dugu, bien artean izango dugun kostua 30000€. Metodo honek, negozioarekin hasteko, beste edozein aukera baino merkeago aterako zaigula uste dugu, gasolinaren gaiari buruz, "Costco"

empresaren bazkideak egingo gara gaur egun inguru horretako gasolindegirik merkeena delako, gainera, bazkide bazara, 20 zentimoko deskontua aplikatzen dizute botatzen duzun litro bakoitzeko. Gutxi gorabehera astean 100 litro gasolina erabiliko ditugula uste dugu. izan ere, furgonetak 10 litro kontsumitzen ditu 100 kilometrotik behin, eta, gutxi gorabehera, 10.000 kilometro egingo ditugu astean. kalkulu hori 2rekin biderkatu behar dugu, bi furgoneta ditugulako, guztira 3200 € emango lizkiguke astean, metodo honekin Espainiako leku guztietara helduko gara.

Gure enpresa sortu eta urte batzu pasa eta gero, uste dugu askoz hobeto aterako zaigula garraio-enpresa batekin hitz egitea, adibidez, SEUR, gure produktua banatzeko, ez zaigu errentagarri ateratzen furgoneta gehiago erostea eta guk edo langileek batek banatzea, uste dugulako furgoneta asko erosi behar ditugula gure salmentak handitu egin direlako, orduan kostu oso handia izango da.